

EUROPAKO ELKARTEAN SARTZEAK EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN IZANDAKO ERAGIN EKONOMIKOA

Mikel Navarro Arantzegi

ESTeko Ekonomia Departamentuko Irakaslea

Europako Elkartean sartzeak Euskal Autonomi Elkartean izandako eragin ekonomikoa ulertu ahal izateko, behar-beharrezkoa da Europako Elkartea zer den jakin eta ulertzea. Horregatik, lan honen lehen atalean azaltzen dira, labur-labur, zer-nolako ekintza eta politika abian jarri diren EEEn, merkatu amankomuna eta beste hainbat helburu ekonomiko iristeko. Ondoren, bigarren atalean, EEERI atxikitzetik eratorritako zenbait ondorio ekonomiko erakusten dira: Euskal Autonomi Elkartearen fluxu publikoen okerragotzea, bateko; eta arrantz, industri eta zerbitzu-sektoreen eboluzioan izandako eragina, besteko.

EUROPAKO ELKARTEA

1. Merkatu amankomuna

Ekonomilariok “merkatu amankomun” deitzen diogun espazio ekonomikoak bi ezaugarri du: batetik, ondasun eta zerbitzuak, langileak eta kapitalak oztoporik gabe mugitu ahal izatea; bestetik, espazio horrez kanpoko herrialde-ekiko aduanakoa arantzel eta merkatal politika amankomuna izatea.

Herri elkartekideek osatzen duten espazioa merkatu amankomun bihurtzeko asmoz, EEEK zenbait ekintza eta politika abian jarri ditu:

1.- **Elkartearen barruko merkantzien ibiltze askea.** Horretarako beharrezkoa zen aduana-eskubi-deak eta ondorio antzekoa duten exakzioak kentzea, murrizte kuantitatiboak eta ondorio baliokideko neurriak ezeztatzea eta izaera komertzialeko estatu-monopolioak egokitzea.

2.- **Langileen ibiltze askea.** Horrekin esan gura dugu estatu elkarkide bateko edozein langilek, zeinahi delarik ere haren egoitza, eskubide osoa duela beste estatu elkarkide baten lurraldean alokairu-iharduera batera iristeko eta beronetan aritzeko, estatu elkarkide horretako langile nazionalen enplegua zuzentzen duten legezko, erregelazko edo administraziozko xedapenen arabera.

3.- **Ezartze eta zerbitzugintza askea.** Ezartzeko askatasunak haxe esan nahi du: estatu elkartekide bateko sozietate edo langile beregain batek eskubidea duela beste estatu elkartekide batean iharduteko, estatu beronetako sozietate edo langile beregainak aritzen diren baldintza berdinetan. Eta zerbitzugintza askeak zera esan nahi du: estatu elkarkide bateko establezimendu batetik beste estatu elkartekide bateko onuradun bati ematen zaizkion prestazioak Gobernuak ez dituztela oztopatu behar.

4.- **Kapitalen ibiltze askea.** Hots, estatu elkarkide batekoek beste estatu elkarkide batean zuzeneko inbertsioak, zorro-inbertsioak, kontu korronteak irekitzeak,... egin ditzaten oztoporik ez egotea.

5.- **Lehiaketa-politika.** Horretarako, enpresen akordioetatik, enpresa baten jarrera menperatzailetik, enpresa publikoak jasotako faborezko tratutik eta estatu elkarkideek emandako laguntza publikoetatik merkantzien ibiltze askeari sortzen zaizkien oztopoak ezeztatu behar dira.

6.- **Zerga-harmonizazioa.** Hots, herri elkartekideen zergapen ezberdinak hurbiltzea.

7.- **Estatu elkartekideen moneten ganbio-tipoen arteko egonkortasun edo finkotasuna.** Hori lortzearren, 1979an Europako Moneta-Sistema sortu zen; gaur

egun, alabaina, aurrerago joan nahi da eta Ekonomi eta Moneta-Batasunaz hitzegiten da.

8.- Kanpo-herrialdeekiko merkatal politika amankomuna.

Politika honen barruan sartzen dira Aduanako Arantzel Bateratua, Elkartearen merkatal eraentzak, dumping eta subentzioen kontrako eraentzak, Lehentasun Orokortuko Sistema, kanpo-herrialdeekin sinaturiko akordioak, etab.

Esan beharra dago, hala ere, aipaturiko xede horiek ez direla bete-betean iritsi. Hamaika oztopok dirau oraindik, merkantzien, zerbitzuen, langileen eta kapitalen ibiltze askea eragozten dutenak. Hor daude, adibidez, estatu elkartekideek jarritako osasuneko, kalitate-kontrolako, normalizazioko eta abarreko arautze konplexuak; kontratu eta enkante publikoetan egin ohi diren bertakoen aldeko bereizketak; ikasketa-tituluen arrezagutzeko arazoak; Batzordeak herri elkartekideen laguntza publikoak kontrolatzeko dituen zailtasunak; zerga-harmonizazioa aurrera eramateko zenbait estatu elkartekideek jarritako betoak; etab.

Dena dela, merkatu amankomun baterantz emandako urratsak ez dira makalak izan. Gainera, merkatu amankomuna iristeko gelditzen diren oztopoen inbentarioa egin ondoren, Europako Batzordeak plan bat abian jarri du, 1992rako oztopo horiek guztiak ezabatuak egon daitezzen.

Esan beharrik ez, bai 1986ean EEEen lortua zegoen jareite-maila iristeko bai horrez geroztik EEEen hartu diren jareite-neurriak bere egiteko, Espainiaren eta Euskal Autonomi Elkartearen ekonomia erregulatzen zuen ingurumari edo markoan izugarrizko aldaketak egin behar izan dira. Haien artean honako hauek aipa litezke:

-Espainiak bere arantzelak kenduz joan behar izan du, bai gainerako estatu elkartekideekiko eta bai Europako Elkartek lehentasunezko merkatal akordioak sinaturik dituen herrialdeekiko; eta gainerako hirugarren herrialdeekiko, Espainiak jaitsiz joan behar izan du bere arantzalen babesmaila Europako Elkartek duen Aduanako Arantzel Bateratuareneraino.

-Espainiako ekonomia babesten zuten murrizte kuantitatiboak ezeztatu eta merkatal eraentzak aldatu behar izan dira; eta horrekin batera, administrazio-izapidetzaren errazte eta sinplifikazioa gertatu da.

-Funtsezko diren zenbait sektoretan (hala nola banka, aseguru eta garraioak) ezartze eta zerbitzugintza liberalizatu behar dira. Hori dela eta, Espainiarentzat onartutako aro iragankorra bukatu eta gero, atzerri-enpresekiko lehiaketa biziki handituko da sektore horietan.

-1992 ondoren ganbio-kontrolak liberalizatuak egon beharko du

Espanian; ordura arte iraungo duen aldi iragankorrean, ordea, Espainiari utzi egin zaio zenbait kapital-higidurari atzerapideak jartzen.

-Krisian zeuden hainbat enpresa eta sektorerentzat Espainiako eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak ematen ari ziren laguntza publikoak moztu behar izan dira, Europako Elkartearen lehiaketa-politikaren aurkakoak zirelarik.

-BEZaren ezarpena zela eta, Barne-Zamak Konpentsatzeko Zergak inportazioekiko zekarren isilpeko babeskuntzak, eta Esportazioko Zerga-Arinketak esportazioentzat suposatzen zuen izkutuko subentzioak desagertu behar izan zuten 1986an.

-Pezeta 1989an Europako Moneta-Sistemaren ganbio-mekanismoan barneratzean, pezetaren ganbio-tipo nominalaren balio-galerarekin konpetitibitatea lortzeko zegoen ahalbidea (eta, horrela, espainiar inflazio handiagoak zekarren konpetitibitate-galera konpentsatzeko zegoen aukera) desagertu zen.

2. Europako Elkarteko eskusartze positiboko politikak

Ikusi dugun bezala, Europako Elkartea saiatu da estatu elkartekideen espazioa merkatu amankomun bihurtzen. Horretarako, merkantzien, zerbitzuen, kapitalen eta langileen ibiltze

askea galerazi eta, ondorioz, merkatuaren mekanismoaren funtzionamendua eragozten dituzten atzerapideak kentzen ahalegindu da.

Merkatuaren mekanismoaren funtzionamenduak ez du ahalbidetzen, ordea, gizarteak lortu nahi dituen helburu guztiak iristea. Hori dela eta, merkatu amankomuna inguratzeko abian jarritako ekintza eta politikekin batera, Europako Elkartek merkatuaren funtzionamendua osatzera edo zuzentzera doazen ekintza eta politika batzuk ere eratu ditu. Adibidez, Europako eskualdeen garapen-mailak ezberdinak merkatuak berdintzen ez zituela ikusirik, erregio-politika antolatu zuen; gizartearen zenbait talderen egoera txarra merkatuak ez zuela behar bezala konpontzen ikusirik, gizarte-politika eratu zuen; Europako Elkartek EEBB eta Japoniarekiko zuen atzerapen teknologikoa gainditzeko neurri bereziak hartu beharra zegoela oharturik, teknologi politika sortu zuen; etab.

Merkatuaren funtzionamendua zuzendu edo osatzeko hartzen diren neurri guztiek ez dakarte beti berekin Europako Elkartearen aurrekontu-gasturik. Adibidez, ingurugiroa babesteko asmoz, enpresek eguratsera zenbait partikula edo gai jaurtikitzea araez galeraz dezake Europako Elkartek, eta eskusartze horrek ez du bere aurrekontuan isladapenik. Dena dela, Europako Elkartearen aurrekontua nola dagoen osatua aztertzeak Elkartearen politika horien pisuaz eta garrantziaz ohareraz liezaguke. Begira diezaiogun, bada,

gaingiroki bada ere, Europako Elkar-
tearen aurrekontu orokorrari.

Europako Elkartearen aurrekontu orokorra aztergai hartzean hauxe da lehenik jakingarri gertatzen zaiguna: haren tamaina txikia. Izan ere, kopuru absolutuetan handia irudi badaiteke ere, alderatzen badugu Elkartearen barne produkzio gordina-
rekiko (BPGtik % 1 da), edo estatu elkarkide guztien aurrekontuen batuketarekiko (% 3), berehala ohar dezakegu “Elkartearen aurrekontua ez dela axolazko politika-sail baten finantzabide eraginkorra, ezta errenta birbanatzeko edo ekonomia egon-
kortzeko tresna egokia ere”.

Aurrekontuaren gastu-banaketari so egiten badiogu (ikus 1. taula) ondoko hauxe ondoriozta dezakegu:

- Aurrekontu gastu gehiena –bi heren, gutxi gorabehera– nekazal

politikak irensten du. Politika honek funtsean prezioak mantentzea eta nekazal sobe-
rakinak finantzatzea du helburu.

-Egiturazko Fondoei (hots, Euro-
pako Garapen Erregionalerako Fondoari, Europako Gizarte-
Fondoari eta Europako Nekazal Orientabide eta Bermerako Fondoaren Orientabide-sailari) dagokien gastua askoz apalagoa da, nahiz eta 1988az geroztik Fondo hauentzako baliabideak handituz joan.

-Industri, teknologi eta energi politikei esleitzen zaizkien baliabideak oso urriak dira.

-Azkenik, pertsonal eta erakunde-
funtzionamenduari dagokien gastuak pisu txikia du aurrekontu guztiarekiko.

1. Laukia: EEEren gastu-aurrekontu orokorraren banaketa (1.989)

	Milioi ECU	%
Nekazaritza eta arrantza	30.032	67
Erregio-politika	4.294	10
Gizarte-politika	3.232	7
Ikerketa, energia, industria, ingurugiroa eta garraioa	1.536	3
Garapenerako lankidetzak	1.032	2
Besterik	2.562	6
Funtzionamenduko gastuak	2.153	5
GUZTIRA	44.841	100

EUROPAKO ELKARTEAN BARNERATZETIK ERATORRIRI- KO ONDORIO EKONOMIKOAK

1. Fluxu publikoak

Espainia Europako Elkartean barneratu denean, Gobernu Zentral eta Autonomoaren hainbat eskuduntza Europako Elkartearen erakundeen eskutara igaro eta, ondorioz, Gobernu Zentral eta Autonomoaren politika batzuk Europako Elkarteko erakundeek agindutakora egokitu behar izan dira. Gobernu Zentralak, adibidez, bere erregio-politika errotik aldatu behar izan du, baita neurri handi batean bere industri politika ere, etab.

Dena dela, gu ez gara orain eskusartze positiboko politika bakoitzean zer gertatu den arakutzen hasiko. Hemen ikusi edo aztertu nahi duguna askoz apalagoa da: EAEak Europako Elkarteari egiten dion baliabide-ekarpena gutxi-gorabehera zein den, eta, horren truke, politika amankomunen aplikazioz Europako Elkartetik EAEra itzultzen den kopurua zenbatekoa den. Fluxu hauen saldoa neurtu duen ikerketarik ez dugu ezagutzen, eta ulertzekoa da: politika askoren emaitzak ez dira eskualdeka argitaratzen. Horregatik, hemen, fluxuen saldo zehatzaz baino fluxuen zeinuaz ariko gara.

Europako Elkartearen gastu-aurrekontuak Euskal Autonomi Elkartean duen eraginaz hauxe esan daiteke:

1.- Nekazal gastua. Lehen esan bezala, Europako Elkartearen aurrekontu orokorretik bi heren nekazal prezioak mantentzeko eta nekazal soberakinak finantzatzeko politikak irensten du. EAEak nekazal soberakinik ia ez duenez gero, Europako Elkartearen nekazal politikatik gure herrirantz datozen baliabideak txikiak dira oso.

2.- (EGAEF) Europako Garapen Erregionalerako Fondoa. Europako Elkartearen gastu-aurrekontuko bigarren kontusailik handiena EGAEFen bitartez burututako erregio-politikari dagokio. Fondo honen baliabideen banakuntzan ere Euskal Autonomi Elkartea ez da onuradun atara; 1986-88 urteetan, adibidez, Espainia-erentzat emandako dirutza guztitik % 1,3 bakarrik etorri zen Euskal Autonomi Elkartera.

Egiturazko Fondoaren erreformentaren ondoren Euskal Autonomi Elkarteari ematen zaion tratamendua aldatzen bada ere, egoera berria ez da guztiz gogobetegarria ere. Izan ere, EGAEFen baliabide gehienak eskualde atzeratuenetara bideratuko dira; eta Euskal Autonomi Elkartea bezalako Ikeango industrialdeetara, oster, EGAEFen baliabideetatik %15 bakarrik joango da. Gainera, ikean dauden industrialdeak zein izan daitezkeen finkatzerakoan erizpide zabalegiak erabili

direnez gero, eskualde-multzo honentzat esleitutako baliabideak partaide gehiagoren artean banatuko dira eta benetan langabezia handiarekin eta kinka larrian dauden gurea bezalako eskualdeentzat diru gutxiago geldituko da.

3.- (EGIF) Europako Gizarte-Fondoa. EGIFen finantz esku-sartzeak onuragarriak izan zaizkio Euskal Autonomi Elkarteari. Hala ere, Espainiako hainbat Autonomi Elkarre ez bezala, Euskal Autonomi Elkarrea ez zen "superlehen-tasunezko" joa izan, eta ondorioz ez zuen haiek adina erraztasunik izan finantz laguntzak eskuratzeko. Horrela, adibidez, nahiz eta 1989an Espainiako langabetu guztietatik % 6,5 Euskal Autonomi Elkarrean egon, Espainiara etorritako baliabide guztietatik % 5,5 bakarrik iritsi ziren gure Autonomi Elkarera.

4.- (ENOBEP-Orientabidea) Europako Nekazal Orientabide eta Bermerako Fondoa. Hirugarren "egiturazko fondo" honen baliabideak, bi aurreko fondoena baino txikiagoak, nekazal zein arrantz eskualdetara bideratu ohi dira. Nekazal politika sozioegiturazkoa dela bide Euskal Autonomi Elkarre jasotako laguntza txikia izan da; bidezkoa dirudiena, bestalde, Euskal Autonomi Elkarrearen ekonomian nekazaritzak duen pisu txikia ikusita.

Arrantz politika sozioegiturazkoa dela bide jasotakoa ere ez da oso handia izan. Gainera, kasu honetan Euskal Autonomi Elkarre jasotakoa euskal itsasontziteriak Espainiakoaren aldean suposatzen duen ehunekoaren azpitik gelditu da. Izan ere, Andaluzia edota Galizian gertatutakoaren alderantziz, Euskal Autonomi Elkarrea itsasontziteriaren birmoldaketarekiko "leku ukibera" ez da aldarrikatua izan eta, ondorioz, gure itsasontziteriaren eraberritze-inbertsioetarako Europako Elkarre emandako dirulaguntzak txikiagoak izan dira aipaturiko eskualdeentzat emandakoak baino.

5.- Teknologia politika. Gero eta garrantzi gehiago ematen zaion politika honetatik ere ez dator baliabide asko Euskal Autonomi Elkarera. Espainiako Administrazioak argitara emandako azterketa batzuek argi eta garbi erakusten dutenez, Espainiak diru gehiago ematen du EEEn ikerketa-egitarauentzat, espainiar enpresa eta ikerketa-zentruak egitarau horietatik jasotzen dutena baino. Eta beste horrenbeste esan genezake Euskal Autonomi Elkarreaz. Euskal enpresak txikiak dira, oso indibidualistak, teknologia maila eskasekoak, EEEn ibiltzera gutxi ohituak... eta hori dela eta, ez dira gauza izaten Europako Elkarrearen ikerketa-egitarauetan eskuhartzeko.

6.- Aurrekontuko gainerako gastuak. Hirugarren munduko herrientzat ematen diren garapen laguntzetatik, EEEn erakundeentzako funtzionatze-gastuetatik, eta gainerako gastuetatik ere Euskal Autonomi Elkarrekin ez du zuzeneko probetxurik ateratzen.

Europako Elkarrekin gastu-aurrekontuari begiratu ordez, sarrera-aurrekontuari begiratzen badiogu, zera kontutan hartu behar dugu: Espainiak EEEn ordaintzen duen gutxitik % 6,24 Euskal Autonomiari dagokiola (zeren eta honek, Madrilgo Gobernuari ordaintzen dion kupoaren bitartez, portzentaia horretan eskuhartzen bait du Espainiako estatuaren gastu transferitugabeetan). Hori horrela, 1991 urtean Espainiak EEEn aurrekontu orokorretarako 500.000 milioi pezeta inguru eman duela aintzat hartzen badugu, urte horretan Euskal Autonomi Elkarrekin EEEn sarrera-aurrekontuari egin dion ekarpena 30.000 milioi pezetakoa izan dela ondorioztatu dezakegu.

Agerian dago, beraz, EEEn Euskal Autonomi Elkarrekin itzultzen dena, beraz EEEn ordaindutako 30.000 milioi pezeta horiek baino askoz gutxiago dela; hots, Euskal Autonomi Elkarrekin EEEn dituen finantz fluxuak negatiboak direla. Fluxuen zeinu hori are gutxiago ulertzen da kontutan

hartzen badugu gure errenta "per capita" Europako Elkarrekin batezbestekoaren azpitik dagoela, eta gure langabezi tasa Europako Elkarrekin aldean bi aldiz handiagoa dela.

2. Barneratze eratorritako ondorio ekonomikoak sektoreka

Euskal Autonomi Elkarrekin EEEn dituen fluxuak negatiboak izan arren, hori ez da izan ezta urrik eman ere— Europako Elkarrekin barneratze gure herriarentzat eratorritako ondorio larriena. Askoz larriagoa izan dira merkatu amankomun baten partaide bihurtzeagatik eratorritako ondorioak. Izan ere, Europako Elkarrekin barneratze gure ekonomia babesten zuten hainbat mekanismo kendu behar izan dira, eta horrek gure lehiagarritasun edo konpetitibitate-mailan eragin handia izan du.

Oso bestelakoa izan da sektore ekonomiko batetik bestera lehiagarritasun-mailan barneratzeak izandako eragina. Horregatik, Europako Elkarrekin barneratze eratorritako ondorio ekonomikoak ezagutzeko, sektorez-sektore zer gertatu den aztertzea komenigarria da. Azterketa hori, hala ere, ez da erraza, zerenez Europako Elkarrekin barneratzeak ez da izan sektore ekonomikoen eboluzioan eragin duen faktore bakarra; aitzitik, hamaika faktore egon da (adibidez, petrolioaren prezioaren jaitsiera, dolarraren beherakada, eskariaren gorakada Espainian, etab.) ekonomi sektoreen

eboluzioa esplikatzeko noraezekoak direnak eta ez da erraza bereizten sektorearen eboluzioa noraino zor zaion bati edo besteari.

2.1 Nekazaritza

Euskal Autonomi Elkartearen ekoizpena eta EEERena oso antzekoak dira: abeltzantzaren ekoizpenak (esnea eta behikia, batez ere) garrantzi handiagoa du lurgintzaren ekoizpena (barazkiak, garia, etab.) baino. Hori aintzat hartzekoa da bi arrazoiengatik: alde batetik, Euskal Autonomi Elkartearen nekazal sektorearen ekoizkortasun eta lehiagarritasuna EEERena baino apalagoa delako; eta bestetik, EEERen ekoizpen horietan soberakin handiak daudelako eta horrek, merkatuko lehiaketan nabaritzeaz gainera, EEEReko erakundeak politika murrizkorrak ezartzera bultzatzen dituelako.

Esan beharrik ez, politika murrizkor horrek euskal nekazaritzaren errentagarritasunean eta birmoldatzeko ahalbideetan eragin negatiboa du. Adibidez, esne-larrekoizpenari aurre egiteko EEEReko erakundeek ezarritako ekoizpen-kuotek eragotz dezakete euskal baserritarrek esnegintzaren ekoizkortasuna goratzeko -eta beraz lehiagarriak izateko- zuten bide bat: ustiatetik ekoizpena handitzea.

Labur esan beharrez, EEERi atxikitzeak ondorio negatiboak ditu hainbat ekoizpenetan: esnea, behikia, txerriak, patata, erremolatxa... Eta ondorio negatibo horiek ez dira guztiz konpentsatzen, beste zenbait

ekoizpenetan (ardoak, ardikia, oihartzantza...) sorterazitako ondorio positiboekin edota EEERen nekazal politika sozioegiturazkoak gure lurraldearentzat emandako zenbait laguntzarekin (adib. Euskal Autonomi Elkartea bezalako mendialde eta eskualde defaboratuentzat EEERek emandako laguntzekin).

2.2. Arrantza

Sektore honen etorkizuna nahiko beltza da, gehiegiko ustiakuntzak eta kutsadurak itsas baliabideen agortzea dakartelako. Arrantzaren etorkizunerako, egiturazko arazo horiek garrantzitsuagoak dira noski EEERi atxikitzeak etorritakoak baino. Dena dela, gu hemen azken hauetaz ariko gara gehienbat, gure idazlantxoaren xedeari lotuz.

Europako Elkartearen arrantz politikaren ondorioz behinenak Euskal Autonomi Elkarteko arrantzaleentzat honako hauek izan dira:

- Lehenik, EEERi atxikitzean euskal arrantzaleei ezarritako harri-paketa-kuotak, itsasontzientzako lizentziak, etab. diskriminatzaileak ziren, beste herri elkartekideei galdatu ez zaizkienez gero. Hala ere, euskal itsasontziteriarentzat emandako lizentzien kopurua eta kuoten zenbatekoa handiagoak dira EEERi sartu aurretik emanak zeudenak baino.
- Bigarrenik, EEERtik zetozen arrain-inportazioen aurrean Espainiak

jarri ohi zituen atzerapideak kendu behar izan dira eta horrek arrain-inportazioak erruz handitzea ekarri du eta, honekin batera, euskal arrantzaleen salmenten eta prezioen okerragotzea.

-Hirugarrenik, Euskal Autonomi Elkartea baliatu ahal izan da EEEren arrantz-politika sozio-egiturazkoak emandako laguntzez. Baina beste zenbait itsas eskualde lehiakide ez bezala, Euskal Autonomi Elkartea ez da "eskualde ukibera" joa izan eta, ondorioz, itsasontzien eraberritzerako laguntza txikiagoak jasotzen ditu.

2.3. Industria

Europako Elkarteari atxikitzeak Euskal Autonomi Elkarteko industrian izan edota izango duen eragina ikusteko, bi gauza egingo dugu: alde batetik, Euskal Autonomi Elkartearen merkatal balantzak 1985-90 urteetan izan duen eboluzioa (nolabait ere, bere ekonomiaren lehiagarritasun edo konpetitibitatearen eboluzioa isladatzen duena) aztertzea; eta, bestetik, gure industriaren garapena baldin-tzatzen duten faktore kritikoak azaltzea.

A) Merkatal balantzaren eboluzioa.

Lehen esan bezala, ekonomiaren eboluzioan faktore batek baino gehiagok eragiten du, eta zaila izaten da faktore bakoitzaren eragina neurtzea. Adibidez, 1985az geroztik Espainiako eta Euskal Autonomi Elkarteko industrian -eta ekonomian,

orojar- egondako susperraldiaren atzean, 1985-86ko petrolioaren prezioaren beherakada, aurreko urteetan ekonomian egindako doiketak, EEEri atxikitzeak sortera-zitako igurikapen edo espektatibak, barne-eskariak izandako hazkundera... kausi daitezke.

Beste horrenbeste esan genezake merkatal balantzaren eboluzioaz. Eboluzio horretan hamaika faktorek eragin du, eta EEEri atxikitzetik eratorritako babesbide-kenketa, garrantzizkoa izanda ere, faktore horien artean bat besterik ez da izan. Ikus dezagun, dena dela, zein izan diren Euskal Autonomi Elkartearen merkatal balantzaren eboluzioaren gauzarik azpimarragarrienak:

-Euskal Autonomi Elkartearen kanpo-merkatal fluxu guztien barruan estatuaren enparatuari dagokion ehunekoa handitu da eta atzerri-merkatuei dagokiena, ostera, gutxitu.

-Atzerritiko inportazio ez-energetikoak erruz emendatu dira.

-Euskal Autonomi Elkartearen atzerrirako esportazioak 1986an erori ziren, eta urte horrez geroztik berriro handitzen hasi baziren ere, haien hazkunde-tasa esportazioena baino askoz apalagoa izan da.

-Aurreko bi puntuen ondorioz, atzerriarekin Euskal Autonomi Elkarteari duen ekoizkin ez-energetikoen merkatal saldoak okerragotze handia izan du.

-Euskal Autonomi Elkartearen atzerri-rako esportazioek pisua galdu dute Espainiakoen barruan: bai Euskal Autonomi Elkartearen ekoizpen-espezializazioagatik eta bai euskal sektore ekonomikoek izan duten eboluzio txarragoagatik.

-Atzerriarekiko ekoizkin ez-energetikoen merkatal fluxuak gero eta kontzentratuagoak daude EEEko herrialdeetan.

-Merkatal balantzaren eboluzioa asko aldatzen da sektore batzuetatik besteetara, "Metal arruntak eta haien manufaktura"rena bereziki kezagarria delarik.

Ondorioak laburbilduz, euskal enpresek ez dute jakin aprobetxatzen, EEERI atxikitzeak bere atzerri-merkatuak handitzeko eskaintzen zien aukera. Espainiar barne-merkatuak 1985-90 urteetan izandako hazkundeaz liluraturik, ez dute gogotarik egin etorkizunaz eta ez dira saiatu atzerri-merkatuetan beren merkatal sareak zabaltzen eta, horrela, espainiar merkatuak huts egin zezaneko, bere ekoizpen-mailari eutsi ahal izateko merkatu berriak sortzen eta bermatzen. Horretan, estatuaren enparatuako enpresak baino are begilaburragoak izan dira. Atzerri-enpresek, aldiz, hasiera-hasieratik espainiar merkatuaren garrantziaz jabeturik, beronetan sartzeko ahalegin handiak egin dituzte eta azken urte hauetan oso ongi kokatu dira bertan.

Euskal enpresen jokaera begilabur horren ondorioak orain ari gara ikusten: Espainiako ekonomia hozteko neurriak hartu behar izan direnean eta, ondorioz, barne-eskaria erori denean, euskal enpresek ikusi dute bere ohizko merkatua desagertzen zela (are gehiago, etorritako atzerri-enpresak bertan gelditzeko etorriak zirelako) eta espainiar merkatu horiek atzerri-merkatuekin ordezteko prestatuak ez zeudela.

B) Euskal Autonomi Elkartearen industriaren etorkizuna baldintzatzen duten faktore kritikoak

Euskal Autonomi Elkartearen industriaren etorkizun edo garapena baldintzatzen duten faktore kritikoak hiru taldetan sailka litezke, nire ustez: bere industri egiturari dagozkionak, bere enpresen kultura eta estrategiari buruzkoak eta enpresen kanpo-ingurumariari dihoazkionak. Ikus ditzagun banan-banan.

1) Industri egitura. Euskal industri egitura oso gutxi dibertsifikatua dago eta gehienbat sektore helduek osatua da (metal-sektoreak, batez ere). Sektore horietan eskariaren hazkundera txikia izaten da, balio erantsia urria eta atzerrian kokaturiko azken iharduerarekiko menpekotasuna handia. Krisian zehar industria berregituratzeko eta kostuak behartzeko ahalegin handiak egin badira ere, ekoizkin edo produktuak dibertsifikatzeko eta berritzeko politikak huts egin du. Hori dela eta,

euskal industriaren ekoizkinen naziorteko merkatuetan lehia bizi-bizia izaten da. Aipatzekoa da, orobat, industri egituraz ari garen lerroalde honetan, euskal enpresen tamaina txikia, haien merkatal, finantz eta teknologi ahalmenerako oztopo izaten dena.

- 2) Enpresen kultura eta estrategia. Euskal enpresa asko familiarak dira eta haien jatorria ia artisanala. Gainera enpresa horiek merkatu babestuan garatu dira, oso gutxi direlarik Euskal Autonomi Elkartearen kokaturiko talde multinazionalak. Horrek guztiak eragin du, ezpairik gabe, euskal enpresen kultura, estrategia eta kudeamenduan.

Gure industriaz egin diren azterketek agerian utzi dute gure enpresak ez daudela behar bezala profesionalizaturik eta sailka antolaturik; epe laburreko ikuspegia dutela eta arras konpartimentalizatua; ekoizpenari gehiegi begiratzen diotela, marketing, diseinu, salmenta-ondoko zerbitzu eta abarren garapena ahaztuaz; nazioarteko ikuspegi motza dutela; txit indibidualistak direla eta merkataritza, I+G eta antzeko alorretan ekintza bateratuak eramateko ezguzak; inguruko ikastetxe, zentru teknologiko eta abarrekiko harreman gutxi dutela; ...

Bestalde, jendeari bestela iruditu arren, datuek erakusten dute euskalduna ez dela hain ekintzale (alderatu besterik ez dago mila biztanleko zenbat establezimendu berri sortzen den hemen eta beste herri aurreratuetan); aitzitik, datuek erakusten dute izpiritu ekintzale hori urria dela eta euskal enpresek berrikuntzak, arriskuak hartzea eta epe luzeko inbertsioa gaitzesten dituztela.

- 3) Enpresen kanpo-ingurumaria. Hainbat estudiok erakutsi duenez, euskal enpresen kanpo-ingurumaria ere (hots, hezkuntz sistema, finantz sistema, enpresentsako zerbitzuak, garraio eta komunikabideetako azpiegitura, etab.) desgokia da eta euskal industriaren lehiagarritasun edo kompetitibitate ezean eragiten du..

Esan beharrik ez, gure industriaren lehiagarritasun mailan eragiten duten faktore horiek aldatzen ez badira, zaila izango zaio gure industriari merkatu ireki batean ihardutea; eta Europako Elkartearen barruan egotetik, aukerak baino, mehatxuak etorriko zaizkio.

2.4. Zerbitzuak

Industria ez bezala, zerbitzuen sektorearen iharduera asko ez du ukitzen nazioarteko lehiaketak. Horregatik sektore honetako hainbat iharduerarentzat EEERi atxikitzeak ez

2. Laukia: Euskal Autonomi Elkartearen kanpo-merkataritza ekoizkinen arabera (Milioi pta.)

	E S P O R T A Z I O A K			I N P O R T A Z I O A K					S A L D O A K		
	1985	1986	1990	1985	1986	1990	90/	1985	1986	1990	
Nekazal ekoizkinak	15.703	14.368	22.032	38.073	42.971	66.875	176	-22.370	-28.603	-44.843	
Kimika	21.070	15.002	17.268	20.061	20.540	31.389	156	1.009	5.538	-14.121	
Papera	11.688	12.036	16.394	13.369	17.289	20.568	153	-1.681	-5.253	-4.174	
Kautxua eta plastikoak	56.272	51.566	68.576	23.140	23.275	45.930	198	33.132	28.291	22.646	
Metal eta bere manufak	213.333	142.687	177.004	99.068	100.557	138.242	140	114.265	42.130	38.762	
Ekipamendu-ondasuna	105.277	116.383	209.669	40.522	65.345	133.835	330	64.755	51.038	75.834	
Beste industriak	39.178	30.185	37.312	27.760	31.919	56.761	204	11.418	1.734	-19.449	
Ez-energetiko guztiak	462.521	382.228	548.254	261.994	301.896	493.601	188	200.527	80.332	54.654	
Ekoizkin energetikoak	127.340	70.063	66.187	343.643	132.018	167.694	64	-216.303	-61.955	-94.383	
Guztira	589.861	452.291	614.442	605.637	433.914	661.295	109	-15.776	18.377	-54.654	

Iturria: "Aduanetako Zuzendaritza Orokorra"ren datuak (Ekonomi eta Egitamugintza Sailak argitaratuak), neronek landuak.
 Oharra: 1990eko datuak behin-behinekoak dira.

dakar, zuzenean behintzat, mehatxu-
-aukera handirik. Agian sektore
honetan ukituak izan daitezkeen
artean banka izango da garran-
tizkoena.

Jakina denez, Espainiako interes-
-tasak Europako herrialdeetan dauden
handienak dira. Horri zor zaizkio,
besteak beste, Espainiako bankuen
bitartekotze-kostu eta irabazi handiak.
Esan beharrik ez, hori horrela
gertatzen da atzerri-bankak Espainian
ezartzeko eta bere zerbitzuak emateko
askatasunik ez duelako. Egoera hori,
ordea, 1992 ondoren aldatuko da; urte
horren ondoren, Europako Elkarrekin
horrela galdatua, atzerri-bankak
askatasun guztia izango du Espainian
ezarri eta zerbitzuak emateko, eta
horrek behartuko du Espainiako banka
bere bitartekaritzako margena gutxi-
tzera eta ematen dituen kredituen
interes-tasak jaistera.

Atzerri-bankaren ezarkuntza eta
zerbitzu-emate askeak Espainiako
bankan izango duen eragina hobeki
ulertzeko, sistema bankarioan bi
banka-mota dagoela jakin behar da:
handikako banka eta txikikako banka.
Lehenengoak bezero gutxi baina txit
handiak ditu (multinazionalak,
enpresa handiak, etab.); haiei zerbitzu
emateko bulego gutxi dauka; tamaina
handia du; ... Bigarrenak, berriz,
bezero asko baina txikiak ditu (etxeko
ekonomiak, enpresa txikiak, etab.);
bulego-sare zabala du; bere ihardueren
tamainak ez du hainbesteko gar-
rantzirik; ... Handikako bankaren
adibiderik garbienak Espainian
jadanik ezarriak dauden atzerri-

-bankuak ditugu, edo espainiar banku
industrialak. Txikikako bankaren
adibiderik garbienak, berriz, aurrezki-
-kutzak eta banku erregionalak ditugu.

Aipatutako ezaugarriengatik, ez
dirudi atzerri-banka txikikako bankan
aritzeko gogorik izango duenik:
bulego-sare zabal bat eraiki beharko
luke eta horrek izugarritzko inbertsioa
eskatuko luke. Gainera, nahiko
saturatuta dago merkatu hori. Beraz,
txikikako bankan aritzen diren
espainiar eta euskal finantz erakundeek
ez dute espero behar zuzeneko
lehiakide berririk.

Bestela gertatzen da handikako
bankaren kasuan. Handikako
negozioan sartzeko ez dira bulego asko
ireki behar eta ez da, hortaz, inbertsio
handirik egin behar. Are gehiago,
atzerri-bankak bere jatorrizko
herrietako bulegoetatik ere eman
litzake zerbitzuak. Hori dela eta,
handikako bankan dihardutenek espero
behar dute, gehienbat, lehiaketa-giroa
biziagotzea.

Baina, hala eta guztiz ere, azken
urteetan izandako irabazi edo mozkin
galantei esker Espainiako handikako
bankak erreserba asko ditu eta, haien
mozkinak gutxitzea gerta baliteke ere,
ez dirudi haien iraupenaz duda egin
beharko litzatekeenik (edo ez
behintzat, jarraitzen bazaio azken
urteetan eramandako isilpeko
birmoldaketari eta planteatzen ari diren
estrategiak -hots, bategiteak edota
beste herrialdeetako bankuekin
akordioak sinatzeak- tajuz eramaten
badira).

3. Laukia: Euskal Autonomi Elkarteak Espainiako kanpo merkataritza duen partaidetza (%)

	E S P O R T A Z I O A K			I N P O R T A Z I O A K		
	1985	1986	1989	1985	1986	1989
Nekazal ekoizkinak	2,5	2,3	2,4	6,8	6,5	6,6
Kimika	7,5	5,8	5,3	5,4	4,4	4,4
Papera	9,5	9,6	9,9	13,8	12,5	8,7
Kautxua eta plastikoak	35,6	33,3	26,0	16,8	13,1	14,0
Metala eta bere manufaktura	33,8	30,5	32,5	28,8	25,9	23,7
Ekipamendu-ondasunak	9,5	10,0	9,3	3,8	4,8	4,0
Beste industriak	5,7	4,3	3,8	4,7	4,6	4,1
Ez-energetiko guztiak	12,7	10,9	10,2	8,3	7,8	6,6
Ekoizkin energetikoak	27,8	23,7	26,5	17,6	12,9	15,9
Guztira	14,4	11,9	11,2	11,8	8,9	7,8

Iturria: "Aduanetako zuzendaritza Orokorra"ren datuak, neronek landuak.

4. Laukia: Ekoizkin ez-energetikoen kanpo merkataritza, eremu geografikoen arabera %

	E S P O R T A Z I O A K				I N P O R T A Z I O A K			
	1985	1986	1989	1985	1986	1989	1985	1989
Frantzia	12,3	17,8	21,2	19,5	20,3	23,9		
Alemania	6,9	9,0	15,3	11,9	16,9	19,1		
Italia	4,2	5,3	7,1	4,3	5,9	9,9		
Erresuma Batua	6,4	7,3	7,9	15,2	10,1	8,3		
EEEren enparatua	5,5	9,9	12,1	9,1	13,0	12,2		
EEE guztira	35,4	49,4	63,7	60,1	66,3	73,3		
Estatu Batuak	9,8	10,6	6,8	11,5	10,1	5,2		
Ipar Europa	3,1	4,3	5,0	8,0	8,1	6,9		
Ekialdeko Herrialdeak	12,8	6,4	3,6	3,6	3,2	3,2		
H.I.B.	4,4	3,4	4,7	3,2	2,4	2,9		
L.S.O.H.	26,2	20,3	11,6	8,8	6,1	4,6		
Munduaren enparatua	8,2	5,6	4,6	4,8	3,7	3,9		
Guztira	100	100	100	100	100	100		

Iturria: "Aduanetako Zuzendaritza Orokorra"ren datuak, (Ekonomi eta Egitamugintza Sailak argitaratuak), neronek landuak.

Oharra: 1990ko datuak, behin-behinekoak dira.

H.I.B.= Herrialde Industrializatu Berriak.

L.S.O.H.= Lehetasun-Sistema Orokortuko Herrialdeak.

Bibliografia

AUTORE BATZU: “Euskadi en la Comunidad Económica Europea”. *Gobierno Vasco*, Gasteiz, 1984.

GOBIERNO VASCO: “Programa de Desarrollo Regional (1986-88)”. Gasteiz, 1985.

EKONOMIAZ, REVISTA DE ECONOMIA VASCA: “Euskadi, región europea” (ale monografikoa) 7. eta 8. zbka. 1987.

PAPELES DE ECONOMIA ESPAÑOLA: 34. zbka. (erregio-politikari buruzko zenbaki monografikoa) 1988.

SAENZ DE BURUAGA ETA BESTE: “Efectos de la adhesión a la CEE sobre los sectores industriales y las regiones de España y Portugal”. Banco Exterior de España, Madril, 1988.

GOBIERNO VASCO, DIRECCION DE COYUNTURA Y PREVISION ECONOMICA: “Observatorio Económico, Informe 1987”. Gasteiz, 1988.